

Itsaslabarreko etxea

Miren Agur Meabe

Aitzinsolasa

Hamasei urte nituen. Bai... hamasei urte. Helduen talaiatik ikusiz gero, urte gutxi agian, bizitzaren ia hasiera, haurtzaroaren paradisia oraindino galtzeke egon ohi den garai zoriontsua.

Hala ere, uste dut nire hamasei urteak bizitza osatu baten baliokide izan zirela, muga baten bestaldetik bezala ikusten baitut ordura arteko guztia: begi nekatur, atzera begiratzeak sortzen didan azkura hain da gordina, eta pena hain da sakona.

Era mingots honetan mintzatu arren, ez naiz zaharra. Urte gutxi igaro da hamasei nituen udatik. Zaharren moduan mintzatzen naizela? Baliteke.

Esan dezaket iragan eta guztiko bizitza daukadala dagoeneko, iruditzen zaidala iraganetik natorrela tunel baten barrutik bidaia zaila eginda legez, eta, azkenik, argitara ateratzen denaren antzera, darduzaturik geratu naizela: oroitzeko beldurrez baina irrikaz aldi berean. Beldurrez, gertatua izugarria izan zelako; irrikaz, bihotz-ikara zoragarrienak orduantxe bildu nituelako.

Joana dut izena. Urte batzuk eman ditut kanpoan eta oraintsu itzuli naiz. Itzuli naiz herrira. Koadernoak ekarri dit, nire bizitzako aingeruen eta deabruen bizitokia izan den koaderno morea. Itzuli naiz itsaslabberrera. Ez nau ilunak menderatu. Hementxe nago. Koaderno honetan dago idatzita nire historia.

Koaderno morea

Hamasei urte nituela, gure amama hilguraz bizitzen. Bizitzako teke-mekeekin akituta zegoen, heriotzaren egarriz. Gaitza egiten zitzaidan hori ulertzea: gazteegia nintzen.

Arrosariora joaten zen, elizara. Egun batean, txirrist egin zuen kalean eta aldaka hautsi zitzaion. Harrezkero ez zen atera, herrentasuna besteko larderia geratu zitzaiolako. Arrosarioa etxean esaten hasi zen, sukaldeko bazter batean eserita, berogailu ondoan neguan eta leiho ondoan udaberri-udetan. Heldu zen momentu bat non, artrosiaren kausaz, ez zen gai arrosarioaren aleak garautzeko eta errezuak nahastentzuten, nahi barik. Horrek ematen zion atsekabeaz ohartuta, kasete bat erosi genion etxekook, arrosarioa grabaturik zuena. Pozik onartu zuen lagunarte monotono hura arratsaldez arratsalde, baina, denborara, eritasunak aurrera egin, eta amamak betiko geratu behar izan zuen ohean, janaria ahora eramateko ere ez zela, elbarri eta itsu.

Arrosarioak eta garai hartako gorabeherek masusta-kolorea eman diete nire oroitzapenei, amama

gaixotu zenetik etengabe entzun ohi nituelako haren marrumak eta inkesak. Bion logelak elkarren alboan zeudenez, estudiatzen niharduenean santu burusoi-len aurpegi zurbilak eta santen begirada deslaiak, abadeen sotanen zirri-zarrak, ur-ponte higatuak, isipu lurrintsuak eta arantzazko koroak etortzen zitzaizkidan burura. Amamaren gelako lelo-melo ahulgarri hura zela-eta, neuk ere, Gizarte edo Matematika edo Hizkuntzakoa, mahai gainean zer liburu neukan ahaztuta, *ora pro nobis, ora pro nobis* amaitzen nuen, letaniako laudorioen zerrendan metaforarik xarmangarrienak aurkituz: goizeko izarra, *ora pro nobis*, urrezko larrosa, *ora pro nobis*, marfilezko dorrea, *ora pro nobis, ora pro nobis*, otoitz gure alde...

Amamaz dudan gomuta, beraz, gazi-geza da, hil nahirik bizi baitzen, senideen alde eta munduko gaixoen eta pobreen alde otoitz egin eta berreginez.

—Eta zeure buruaren alde ez duzu errezatzen, amuma? —galdetu nion behin, arrosario ostean kafesnea eraman nionean.

—Bai, ume, zelan ez dut ba neure alde errezatuko!

Alabaina, amamak ez zuen bizitza eskatzen, heriotza baizik. Eta otoitzetako deitura prezioso haiek guztiek irudimenaren besoetan kulunka jartzen nindutelarik, nire koadernoan idazten hasi nintzen.

Nire koadernoan, lehenengotan, ez zen koaderno bat, orri solteak baino. Klip bat ipini nien eta kaxoian

gorde. Atsegin nuen logelan giltzapetu eta idazten aritzea. Atsegin nuen idatzitakoa berrirakurtzea. Idazten nuenean, mundua ordenatuago zegoela iruditzen zitzaidan, eta nire barrena ezagunago.

Orri solte haiek biltzeko, aurki erosi nuen koaderno bat, azal morekoa, arrosarioak orain gogora ekartzen dizkidan penazko masusten kolorekoa.

Koadernoan apuntatzen nituen liburuetakoa aipu esanguratsuak eta nire bizimodu sinplearen joanean gailentzen ziren gertaerak, nire pentsakizunen behin-behineko zirriborroa, irudikaturiko istorioak edota nolabaiteko zarratada eragiten zidaten pasadizoak. Mindurak ere isurtzen nituen koaderno morera. Esaterako, amamaren erregu samina, inork entzuten ez ziola uste zuenean botatzen zuen eskaria, arnasa etenda eta boli-grafoa eskuan gelditu uzten ninduen otoitz hura:

—Zeuk nahi duzunean eraman nazazu, Jauna, eraman nazazu heriotza on batekin...

Heriotza on batekin... Heriotza ona nahi zuen amamak. Lotan hiltzea, larriunerik gabe itzalen erreinura irristatzea, mantso-mantso. Nik artean ez nekien zer zen heriotza. Banekien zer zen norbait hilda egoitea, baina hori ez zen, ezta hurrik ere, heriotzaren benetako muina, lasterrera ohartu ahal izan nintzenez. Heriotza hondorik gabeko amildegi lanbrotsua zen, aizkorakada erabatekoa eta bortitza. Eta ez zegoen heriotza onik; ezein heriotzak ez du izen hori merezi.